

KANALAK

Atal honetan gure enpresa nola komunikatuko den eta merkatu segmentuetaraino nola iritsiko den deskribatuko dugu, hau da, erabiliko ditugun kanalak.

Kanalaren barnean hurrengo hauek bereizi daitezke:

Alde batetik, komunikazio kanalak daude. Horietan, marketing, publizitatea, propaganda etab. bezeroengana nola iritsiko diren izan behar da kontuan. Gure kasuan, adineko jendea ibiltzen, irakurtzen eta elkar erkazionatzen diren lekuak aztertu ditugu, gure iragarkiak han kokatzeko.

Leku estrategiko horiek bilatzeko, adineko jendearen interesak eta bere denbora librean egiten dutena aztertu dugu. Modu honetara, Bertakok egingo duen propaganda ahalik eta zehatz eta eraginkorra izatea lortu nahi dugu, modu egokian gero eta jende gehiagorengana iristeko.

Hau izan da azterketa sakona egin ondoren lortu dugun informazioa beraien denbora etxetik kanpo pasatzen duten lekuen eta aktibitateen inguruan: parkeak ospitaleak, anbulategiak, jubilatuen egoitzak, kafetegiak, ile apaindegietan eta aktibidadeen artean yoga, memoriako klaseak, bingoa, pilates, egunkaria irakurri, eta lagunekin solasaldiak.

Aurreko dena kontutan harturik definitutako espazioetan gure komunikazio kanala sakontzeko aldizkari propioak jarriko ditugu, **Bertakok** enpresaren azalpenak, ekipo guztiaren argazkiak, dietistaren osasun orokorraren aldeko aholkuak, zerbitzuen deskribapena, produktuen katalogoa irudiekin, prezioak eta gurekin harremanetan jartzeko telefono zenbakia.

Aldizkaria deigarria izateko argazkiak onak eta asko jarriko ditugu kolore asko erabiliz eta letra handiz, jende helduaren atentzioa bereganatzeko.

Ahalik eta bezero potentzial gehiengana iristeko, ale gehien saltzen dituen egunkarian iragarki bat kontratatu dugu eta etxez etxe buzoietan sartuko dugu. Badakigu irakurriko dutenek ez direla denak helduak baina gehienek familiar edo inguruan interesatuak egon daitezken helduak izango dituzte, beraz aktiboki saldu dezakete gure zerbitzua.

Produktuen banaketa egiteko kanal propioa eta zuzena sortuko dugu, bitartekorik gabe. Guk erosi eta zuzenean bezeroengana eramango dugu zerbitzua azkarra izan dadin alde batetik eta bestalde harreman estua bultzatzeko hori baita gure ardatz nagusia eta arrakasta izateko onarritikoa.